

PABELLÓN 6

URR 27,28,29 OCT. 20:00

ANTZERKIA / TEATRO

Errautsak

Artedrama, Le petit Theatre de Pain & Dejabu

Francia/País Vasco, Euskera, 60'



Zuzendaritza/Dirección: Ximun Fuchs

Aktoreak/Reparto: Ximun Fuchs, Ander Lipus, Manex Fuchs, Miren Gaztañaga, Ainara Gurrutxaga, Urko Redondo

Idazkera/Guión: Igor Elortza, Unai Iturriaga

Eszenografia/Escenografía: Jose Pablo Arriaga

Argiztapen diseinua/Diseño iluminación: Josep Duhau

ekoizleak/Compañías: Artedrama, Le Petit Theatre de Pain & Dejabu Panpin laborategia

Odei hil da. Gaztaroko lagunak, urteetan elkarren berririk izan gabe egon ondotik, Hodeiren hiletarako bilduko dira. Saminak eta berriz elkartzearen emozioak eraginda, Hodeiren azken agurra garai bateko festa basati bihurtuko da. Iraganeko eta oraineko egiak, gezurrak eta kontraesanak azaleratuko dituen gau eroa. Noizbait izatea amestu eta sekula izan ez zirenen errautsak baino ez dira geratzen, ordea.

Odei ha muerto. La cuadrilla de amigos de la juventud vuelve a encontrarse para su entierro, después de muchos años sin haber sabido los unos de los otros. Llevados por el dolor, la nostalgia y la emoción del reencuentro, convertirán este último adiós en una fiesta salvaje. La locura de la noche sacará a relucir todas las mentiras, verdades y contradicciones del presente y del pasado. Sin embargo, tan sólo quedan las cenizas de lo que soñaron llegar a ser y nunca fueron.

ARTEDRAMA, LE PETIT THEATRE DE PAIN & DEJABU

XX. mendeko hirurogeita hamargarren hamarkadan jaiok gara. Mundua aldatzear zela sinetsita zeudenengandik sortu ginen. Hautu gaitza, ordea, mundua aldatzea. Musikaz, borrokarako leloz, errepresioz, festaz eta orotariko drogaz inguratu gintuen gaztarokak.

Denboraren errotak egin du gainerakoa. XXI. mendea da, eta XX.eneko ametsen errautsak gara. Oraindik orain, errautsotan noizbait surik izan zela sinestarazi nahi diegu gure buruei. Ba ote?

Nacidos en la década de los 70 del siglo XX. Descendientes de los que estaban convencidos de que el mundo realmente iba a cambiar. Cambiar el mundo; una dura elección. Vivimos nuestra juventud empapada de música, lemas revolucionarios, represión, fiestas y todo tipo de drogas.

Lo demás vino a merced del tiempo. Vivimos en el siglo XXI, y somos las cenizas de los sueños del siglo XX. Incluso aún intentamos convencernos de que donde hay cenizas hubo fuego alguna vez. ¿Será cierto?

www.errautsak.com

